

Berliozko diademaren abentura

ARTHUR CONAN DOYLE

itzulpena:

Izaro Artetxe San Anton
Mirari Peso Gabiña
Rebeca Fernández Rueda



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Berilozko diademaren abentura

itzulpena:

Izaro Artetxe San Anton

Mirari Peso Gabiña

Rebeca Fernández Rueda

—Holmes —esan nuen leiho begiratokitik kalera begira nengoelarik goiz hartan—, hona datorkigu gizon zoro bat. Nahiko zorigaiztokoa dirudi senideek bakarrik irteten uztea.

Nire laguna nagikeriarekin altxatu zen besaulkitik eta, eskuak txabusinaren poltsikoetan sartuta, nire sorbaldaren gainetik begiratu zuen. Otsail freskoko goiz argitsua zen, eta oraindik zegoen kanean aurreko eguneko elurra, dirdira neguko eguzkipean. Baker Streeteko erdian trafikoak zinta marroi bat utzi izan zuen, baina galtzadaren bi aldetara eta espaloietan oraindik elurra erori bezain zuri jarraitzen zuen. Zoladura grisa garbituta eta ekortuta zegoen, baina oso labainkorra ere; hortaz, ohiko baino oinezko gutxiago zeuden. Izan ere, Metropolitan Geltokiko norabidetik ez zetorren inor, deigarria egin zitzaidan gizon xelebrea ezik.

Berrogeita hamar urte inguruko tipoa zen, altua, galanta eta izugarria, aurpegi handiko eta sekulako figura zituena. Estilo ilun baina aberatsa zuen: lebita beltza, kapela distiratsua, azpantar marroi eta orbangabeak, eta perlazko gris koloreko praka ondo moztuak zeramatzan. Hala ere, jantzien eta osagarrien duintasunarekin alderatuta, bere mugimenduek kontraste handia sorrarazten zuten, azkar ari baitzen korrika, batzuetan saltoka ere, hankak esfortzu handietara ohituta ez dituen gizon nekatu bat bailitzan. Arineketan zebilen ahala, eskuak gora eta behera astintzen zituen, baita burua ere, eta aurpegia harrigarriki bihurrikatzen zuen.

—Zer arraio gertatuko zaio? —galdetu nuen—. Etxeetako zenbakiei begira dago.

—Hona datorrela uste dut —esan zuen Holmesek, eskuak igurtziz.

—Hona?

—Bai, laguntza bila datorkidala esango nuke. Sintomak ezagutzen ditut. Hara! Ez dizut esan ba? —Hizketan ari zen bitartean, gizona, purrustaka, gure atera hurbildu zen presaka eta kanpaia hain gogor jo zuen, ezen etxe osotik entzun zen metalezko zarata.

Momentu gutxi batzuk ostean, gelan zegoen, purrustaka eta keinuka oraindik, baina atsekabetuta eta desesperazioz jota zituen begiak. Momentuan, gure irribarreak lastura eta erruki bihurtu ziren.

Hasieran ez zitzaion hitzik ateratzen, baina gizonak gorputza kulunkatu eta iletik tiratu zuen, bere arrazoimenaren mugaraino eramanda egongo balitz bezala. Gero, bat-batean

salto egin zuen, eta burua hormaren kontra hain gogor jo zuen non biok beragana hurbildu ginen bizkor. Ziztu bizian gelaren erdialdera eramán genuen. Sherlock Holmesek butakara bultzatu zuen eta, alboan eseri bitartean, eskuan zapladatxo batzuk eman zizkion eta hizketan hasi zitzaion hain ondo erabiltzen zuen tonu lasaigarriarekin.

—Niregana etorri zara zure istorioa kontatzeko, ezta? —galdetu zion—. Neka-neka eginda zaude presengatik. Itxaron zure onera etortzen zaren arte, eta orduan pozaren pozez ekartzen didazun arazoan murgilduko gara.

Gizona minutu bat edo gehiago egon zen eserita, bularra taupadaka eta bere emozioen aurka borrokan. Gero, zapia bekain gainetik pasatu, ezpainak estutu eta burua guregana biratu zuen.

—Zoratuta nagoela pentsatzen duzue, ezta? —esan zuen hark.

—Arazo larri bat eskuartean duzula igarri dut —erantzun zion Holmesek.

—Jainkoak badaki! Ene arrazoimena asaldatu dezakeen arazoa dakart, hain ezustekoa eta hain ikaragarria. Desohore publikoari aurre egin nezake, nahiz eta momentuz irudia orbaindu ez zaidan. Norberarenganako ezbehar bat edozein gizoni gerta dakioke ere; baina bi horiek batera, eta are hain ikaragarritzkoak, nire arima bera hondatzeko nahikoak izan dira. Gainera, ez naiz ni soilik. Lur hauetako noblerik nobleenak ere pairatu ditzake ondorioak, arazo honetatik irteteko era topatu ezean.

—Mesedez, lasaitu, jauna —esan zion Holmesek—, eta konta iezadazu argi nor zaren eta zer zorigaitz jazo zaizun.

—Ziurrenik, nire izena —erantzun zion gure bisitariak— entzunda izango duzue. Alexander Holder naiz, Holder & Stevenson banketxekoa, Threadneedle Streeten dagoena.

Izena, jakina, ezaguna egiten zitzaigun, Londresko City-ko bigarren banku pribatu garrantzitsuenaren bazkide nagusiarena bera baitzen. Ze gertatu izan zen, orduan, londrestar nagusienetariko bat egoera lastimagarri horretara eramateko? Itxaron genuen, jakin minez betera, bere istorioa kontatzeko indarrak bildu zituen arte:

— Denbora urrezkoa da —esan zuen—. Horregatik arineketan etorri naiz hona, inspektoreak zure laguntza eskuratzea proposatu zidan bezain laster. Baker Streetera ahalik eta azkarren etorri nintzen metroz eta oinez, taxiak mantso baitabiltza (joaten baitziren) elur artetik. Horregatik nengoen arnasestuka, ariketa fisiko gutxi egiten duen gizona naiz eta. Hobeto sentitzen naiz orain, eta ahal eta laburren, baina argi, emango dizut informazio guztia.

»Bada, noski, oso ezaguna banketxe on batek behar dituela gero eta lagun gehiagoren gastuak ordaintzeko inbertsioak eta gordailugile kopurua. Guretzat, inbertitzeko modu errentagarrienetako bat maileguen bidez da, horietan bermea bikaina da. Oso akordio onak egin ditugu azken urteotan, eta familia noble askori kantitate handiak aurreratu dizkiegu haien margolan, liburutegi edota ontziteriaren bermean.

»Atzo goizean nire bulegoan nengoela eseririk, idazkariak karta bat ekarri zidan. Izena ikustean izutu nintzen, bazelako... beno, beharbada hobe da ez esatea nor zen, mundu osoan zehar ezaguna den izena baitzen; Ingalaterrako izenik handienetarikoa, nobleenetarikoa, goratuenetarikoa. Erabat kezkatzen ninduen horrelako ohoreak eta saiatu nintzen, sartu zenean, hori esaten; baina momentuan kontuari buruz hasi zen hizketan, eginkizun desatsegina gainetik azkar kendu nahi balu bezala.

»—Holder jauna —esan zuen—, entzunda dut dirua aurreratzeko ohitura duzula.

»—Konpainiak hori egiten du bermea ona denean —erantzun nuen.

»—Ezinbestekoa da niretzat —jarraitu zuen—, 50.000 libra zuzenean eskuratzea. Lagunei eska niezaieke, jakina, huskeria hori hamarrez biderkatuta. Hala ere, nahiago nuke negozio kontu bat izatea eta nire kabuz aurrera eramatea. Ulertuko duzu, nire egoeran, ez duela zentzurik neure burua eginbeharrez betetzea.

»—Zenbat denborarako, jakin nahiko nuke, behar duzu kopuru hori? —galdetu nion.

»—Hurrengo astelehenean jasoko dut diru kantitate handi bat, eta hortaz buelta diezazuket zuk aurretik emandakoa, egokia iruditzen zaizun interesekin. Premiazkoa zait dirua momentuan izatea.

»—Pozik aurreratuko nizukeen hori nire poltsikotik aterata ere —esan nion—, baina kantitatea gure posibilitatetik kanpo geratzen da. Bestela, konpainiaren izenean egiten badut, ziurtatu beharko nuke, zeure kasuan ere bai, neurri guztiak hartzen direla.

»—Horrela nahiago dut, askoz hobeto —erantzun zidan, bere eserlekuaren ondoan jarritako larruzko kutxa beltz bat altxatuz—. Berilozko diademaren berri duzu, ezta?

»—Inperioaren ondasun publiko preziatuenetarikoa —ihardetsi nuen.

»—Hori da. —Kutxa ireki eta, hor bertan, azal koloreko belus bigunean gordeta, zegoen aipatutako bitxi hain bikaina—. Hogeita hemeretzi berilo harribitxi handi ditu —azaldu zuen—, eta urrezko armazoiaren balioa neurtezina da. Estimaziorik baxuena da eskatu dizudan diru kopuruaren bikoitza. Zure eskuetan bermetzat uzteko prest nago.

»Eskuekin hartu nuen kutxatila eta zur eta lur begiratu nuen nire bezeroa.

»—Zalantzan jartzen ari zara horren balioa? —itaundu zidan.

»—Ez, inondik ere ez. Zalantza bakarra dut...

»—Egokia den ala ez nik hau hemen uztea. Lasai egon zaitezke. Ez nuke ezta ametsetan ere hau egingo lau egunen buruan berreskuratzeaz ziur egongo ez banintz. Formalitate hutsa da. Bermea nahikoa iruditzen zaizu?

»—Nahikoa, eta gehiegizkoa.

»—Ulertuko duzu, Holder jauna, nire konfiantza osoaren proba eman dizudala, zutaz entzundakoa oinarri gisa hartuta. Aintzat hartzen dut izango zarela, ez soilik zuhurra eta esamesaka arituko ez den norbait, baizik eta kapaza diadema hau gordetzeko ahalik eta kontu handienarekin. Ez dut ezta esan behar ere zer nolako eskandalua sortuko litzateke kalterik izanez gero. Edozein kalte eta munduan ez da egongo maila bereko berilorik, ezinezkoa izango litzateke ordezkatzeari. Zuri uzten dizut, hala eta guztiz ere, konfiantza osoarekin, eta ni neu etorriko naiz bila astelehenean.

»Bezeraok alde egiteko irrikaz zegoela ikusita, ez nuen ezer gehiagorik esan. Kutxazaina deitu eta 1000 librarako berrogeita hamar billete baino gehiago ordaintzeko agindu nion. Bakarrik geratu nintzenean, alabaina, kutxatila nire aurrean, mahai gainean egonda, ezin urduriago nengoela, ezin izan nuen ezer egin, erantzukizun handian pentsatzea baino.

Zalantzarik gabe, nazio ondasuna zenez, ikaragarritzko eskandalua sortuko litzateke ezbeharririk gertatzekotan. Jada faborea onartzeaz damutzen ari nintzen. Hala ere, beranduegi zen gauzak aldatzeko, hortaz nire kutxa gotorrean gorde nuen eta lanera bueltatu nintzen.

»Iluntzean, zuhurtziagabetasun hutsa irudituz zitzaidan halako objektu preziatua atzean uztea, bulegoan. Bankarien kutxa gotorak bestetan bortxatuak izan dira, eta zergatik ezingo lukete neurea ere zabaldu? Horrela izatekotan, hara zein egoera larrian egongo nintzateke! Hori dela eta, diademaren kutxa hurrengo egunetan nire gainean eramango nuela erabaki nuen, helmenean beti egon zedila. Intentzio horrekin, taxi bat deitu eta etxera, Streathamera, eraman nuen bitxia. Ez nuen askatasun osoz arnasa hartu gora igo eta nire jantzigelaren idazmahaian gorde arte.

»Eta orain nire etxearen gaineko hitz batzuk, Holmes jauna, sakonki uler dezazun nire egoera. Nire ukuiluzainak eta morroiak etxetik kanpo egiten dute lo; biak alde batera utz ditzakegu. Urte askoz egon diren eta hain fidagarriak iruditzen zaizkit non susmagarriak ez diren hiru neskame ditut. Beste batek, Lucy Parrek, bigarren neskame laguntzailea dena, hilabete gutxi batzuk daramatza lanean. Izaera ezin hobea du, dena den, eta pozik nago berarekin. Neskatxa oso polita da eta miresleak erakarri ditu, etxetik igoazten dira noizbehinka. Hori da aurkitu diogun eragozpen bakarra, baina neskato ona dela uste dut oro har.

»Hori dena zerbitzarien gainean. Familia berez oso txikia da, eta ez du denbora askorik hartuko deskribatzeak. Alarguna naiz eta seme bakar bat daukat, Arthur. Dezepzio handia da, Holmes jauna; dezepzio handia, tamalez. Argi dago nire errua dela. Jendeak esaten du mizke hezi dudala. Ziurrenik, horrela da. Ene emazte kuttuna hil zenean, semea bera bakarrik maita nezakeela uste nuen. Jasanezina egiten zitzaidan bere irribarrea desagertzen ikustea. Ez diot desirarik ukatu. Beharbada biontzako askoz hobea izan zitekeen gogorrago izan banintz, baina nire intentzio onenekin egin nuen.

»Noski, negozioarekin jarrai zezala nahi nuen, baina ez du horretarako balio. Lotsagabea zen, apetatsua, eta, egia esan, ezin nuen berataz fidatu diru kopuru handien maneatzean. Gaztea zenean, aristokraten klub baten kide egin zen, eta hor, xarma handiarekin, zorro handien eta ohitura garestien gizon nahikoren lagun intimo bihurtu zen. Kartazale eta

dirua lasterketetan xahutzen duen apustulari sutsua zen, eta etengabe etortzen zitzaidan aste-saria lehenago jasotzeko eska, ohorezko zorrak kitatzeko. Behin baino gehiagotan saiatu zen konpainia arriskutsu horietatik irteten, baina momentu oro bere lagun George Burwell jaunaren eragina nahikoa zen hura berriro erakartzeko.

»Eta, benetan, ez zait arraro egiten George Burnwell jauna bezalako gizon batek hainbesteko eragina izatea nire semearengan; askotan etxera ekarri du eta ezta nik ere ezin izan dut bere karismarenganako mirespenari aurre egin. Arthur baino nagusiagoa da, munduko gizona da goitik behera; edonon egon da, denetarik ikusi du, hizlari aparta da eta eder galanta. Hala ere, hotzean hartaz pentsatzen dudanean, bere izaera xarmagarritik at, konbentzituta nago ez dela batere fidatzekoa bere hizkera zinikoaz eta begiradaz ohartzean. Hori iruditzen zaigu bai neuri eta Mary txikiari ere bai, zorroztasun handiko emakumea baita.

»Eta jada bakarrik bera geratzen zait deskribatzeko. Nire iloba da; etxean hartu nuen nire anaia hil zenean eta neska bakarrik geratu zenean duela bost urte. Momentu hartatik hona, nire alaba izango bailitzan zaindu dut. Eguzki-izpi bat bezalako da etxean: atseгина, maitekorra, ederra eta etxezain baita etxeakoandre zoragarria da. Halaber, emakume bat izan daitekeen bezain amultsua eta isila eta adeitsua. Nire laguntzailea da. Ez dakit zer egingo nuke bere faltan. Behin soilik joan da nire nahien kontra. Birritan saiatu da semea bere eskua hartzen, asko maite baitu, baina ezetz esan dio bakoitzean. Nire ustean, norbaitek eraman ahal izan balu nire semea bide onetik, bera izango zela. Eta ezkontzak semearen bizitza goitik behera aldatu izango zukeen. Baina, orain, zoritxarrez, beranduegi da! Ez dago erremediorik eta beranduegi da!

»Orain, Holmes jauna, jada badakizunez nortzuk bizi diren nirekin, jarraitu beharko nuke nire istorio tamalgarriarekin.

»Gau hartan, afalostean kafea hartzen geundelarik egongelan, Arthurri eta Maryri kontatu nien gertatutakoa, eta etxean bertan altxor preziatua genuela. Bezeroaren izena bakarrik isilean gorde nuen. Lucy Parrek, kafea ekarri zuela, jada gelatik alde egin zuen, baina ez dakit atea itxita zegoen ala ez. Maryk eta Arthurrek interes handia zuten eta diadema ospetsua ikusteko irrikan zeuden, baina bakean uztea hobea zela iruditu zitzaidan.

»—Non utzi duzu? —galdetu zidan Arthurrek.

»—Idazmahaian.

»—Ea ba, espero dut etxera lapurrik ez sartzea gauean —esan zuen.

»—Giltzapetuta —erantzun nion.

»—Hara, edozein giltza zaharrek ireki dezake idazmahai hori. Gaztetxoa nintzenean nire baitatik zabaldu nuen trastelekuko armairuaren giltzarekin.

»Ohikoa da bere hitz egiteko era axolagabea izatea, horregatik ez nion bueltarik eman esandakoari. Nire logelara jarraitu ninduen, halaber, aurpegia serio-serio.

»—Zera, aita —esan zuen, behera begira—, 200 libra utzi ahal dizkidazu?

»—Ez, ezin dut! —erantzun nuen, zorrotz—. Eskuzabalegia izan naiz zurekin diruari dagokionez.

»—Oso ona izan zara —gehitu zuen—, baina diruaren beharra dut, edo ezingo naiz berriz ere klubean agertu.

»—Ondoen deritzot! —oihu egin nuen.

»—Bai, baina nahiko ez deritzozu ohorerik gabe ni geratzea —esan zuen—. Ezin izango nuke desohorea jasan. Dirua lortu behar dut edonola, eta zuk ez badidazu ematen, beste era batzuk topatuko ditut.

»Haserre bizian nengoen, hilabeteko hirugarren eskaera baitzen.

»—Ez duzu ezta zentimorik ere merezi! —garrasi egin nuen eta, erreberentzia bat egin ostean gelatik irten zen ezer gehiagorik esan gabe.

»Alde egin zuen eta gero, idazmahaia ireki eta altxorra seguru zegoela ziurtatu eta berriz giltzez gorde nuen. Ondoren, etxetik ibili nintzen, dena babestuta zegoela ikusteko; normalean, Mary horren arduraduna bada ere, gau hartan nik egitea ondo zetorkigula iruditut zitzaidan. Eskaileretan behera nindoala, Mary ikusi nuen sarrerako alboko leihoan, instant baten itxi zuen eta hurbildu zitzaidan ziurtatzeko.

»—Esan iezadazu, aita —hasi zen, apur bat urduri omen zegoen—: Lucyri, neskameari, baimena eman diozu gaur gauean ateratzeko?

»—Ez, noski.

»—Oraintxe bertan etorri da atzeko atetik. Alboko atean norbait ikustearren egon den zalantzarik ez dut, baina arriskutsua izan daitekeela deritzot eta hori egiteari utzi beharko lioke.

»—Bihar goizean berarekin hitz egin beharko zenuke, edo nik neuk egingo dut nahiago baduzu. Ziur zaude den-dena itxita dagoela?

»—Oso ziur, aita.

»—Hortaz, gabon. —Muxu eman nion eta logelara bueltatu nintzen. Laster lokartu nintzen.

»Saiatzen ari naiz, Holmes jauna, lagungarria izan daitekeen guztia kontatzen, baina galde iezadazu argi geratu ez den edozeri buruz, mesedez.

—Batere ez, zure azalpena bereziki garbia da.

—Orain helduko da horrelakoa izatea nahiko nukeen parte. Ez naiz lo seko geratzen orokorrean, eta antsietateak ez ninduen ondo lokartzen uzten. Ez dut dudarik, besteetan baino gutxiago. Goizaldeko ordu biak aldera, zarata batek iratzarri ninduen. Isildu zen erabat esnatu nintzenerako, baina norbaitek leiho bat kontu handiz itxi zuelako sentsazioa neukan. Belarriak erne nituen. Bat-batean, nire hondamendirako, pausu batzuk entzun nituen gelaren albotik igarotzen. Ohetik atera, beldurrez beteta, eta kirik egin nuen jantzigelaren atearen izkinatik.

»—Arthur! —oihu egin nuen—, zital halakoa! Lapurra! Nolatan ausartzen zara diadema hori ukitzera!

»Gas-argia potentzia erdian piztuta zegoen, nik utzi nuen bezala, eta zorigaiztoko semea, alkandora eta prakak bakarrik soinean zituela, argiaren alboan zegoen, diadema eskuetan. Bihurritzen ari zela, edo indar handiz tolesten saiatzten ari zela zirudien. Nire oihuarengatik objektua askatu zuen eta niregana biratu zen, zurbilduta. Diadema hartu eta adi-adi begiratu nuen. Hiru berilo zituen urrezko mutur bat falta zen.

»—Gizatxar halakoa! —oihukatu nion, haserre bizian—. Hondatu duzu! Desondra egin duzu betiko! Non dituzu lapurtutako harribitxiak?

»—Lapurtutakoak! —garrasi egin zuen.

»—Bai, lapur hori! —ozen esan nion, sorbaldatik astinduz.

»—Ez da harribitxirik falta. Ez da posible —esan zuen.

»—Hiru falta dira, eta badakizu non dauden. Lapurrez gain gezurti hutsa zara ere bai? Ez zaitut harrapatu beste puska bat kentzen saiatzen?

»—Gauza asko leporatu dizkidazu jada —erantzun zidan—, ezin dut gehiago jasan. Ez dut gai honi buruz ezer gehiagorik gehituko, iraindu baino ez nauzu eta. Etxetik alde egingo dut goizean eta nire kabuz konponduko naiz.

»—Poliziak hartuta irtengo zara etxe honetatik! —deiadar egin nuen, minez eta hiraz erdi erotuta—. Kasu hau sakon ikertu beharko dut.

»—Nire aldetik, ez duzu ezer berririk deskubrituko —esan zidan, inoiz ikusi ez nion suhartasunarekin—. Polizia deitzen baldin baduzu, utz iezaiozu ahal duten guztia aurkitzen.

»Momentu horretarako, etxea erabat asaldatuta zegoen, altuegi hitz egin nuelako haserreagatik. Mary lehena etorri zen bizkor eta, diadema eta Arthur ikusi bezain laster, ulertu zuen gertatutakoa. Oihu egin eta lurrera erori zen konorte barik. Etxekoandrea poliziarengana bidali nuen, ikerketaz arduratu zitezen. Inspektorea eta agentea etxera sartu zirenean, Arthur, umore txarrarekin eta besoak gurutzatuta, galdetu zidan ea lapurretatik salatu nahi nion. Erantzun nion jada ez zela etxeko arazo bat, baizik eta kontu publikoa zela, hondatutako diadema nazioaren ondasuna baitzen. Legea bete behar zela banekien.

»—Behintzat —esan zuen—, ez atxilotu oraintxe bertan. Zure onerako izan daiteke ere bai bost minutuz kanpora banoa.

»—Ihes egiteko, edo beharbada lapurtutakoa ezkutatzeke —ihardetsi nion. Orduan, konturatu nintzenez zer nolako egoera beldurgarrian utziko ninduen, erregutu nion gogoratzeko ez soilik neure ohorea jokoan zegoela, baizik eta ni baino askoz garrantzitsuagoa zen gizon batena ere bai; sor zezakeen eskandaluak nazio osoa kaltetu ahal zuen. Hori guztia saihestu zezakeen hiru harribitxiekin zer egin zuen kontatuz.

»—Aurre egin diezaiokezu —esan nion—, bete-betea harrapatu zaitut, eta ez dago errua astundu ahal dizun konfesorik. Ahal eta bezain beste konpontzen saiatzen bazara, beriloak non dauden esanez, guztia atzean eta barkatuta utz dezakegu.

»—Gorde barkamena eskatzen dizunarentzat —erantzun zuen, eta erdeinuzko keina batekin buelta emanez. Nire hitzek ez zuten eraginik beragan, gaiztotuegia zegoela ikusi nuen. Hala ere, bide bakarra zegoen. Inspektorea deitu eta bere ardurapean jarri nuen. Berehalako miaketa egin zen, ez soilik bere soinean zuenarena, baizik eta logelarena eta bitxiak gorde izan zitzakeen etxeko txoko guztiena ere bai. Baina ez zegoen harribitxien arrastorik, eta mutilak ez zuen txit esan guk konbentzitu eta mehatxatu genion arren. Gaur goizean zeldara eraman dute eta ni, poliziaren formalitateen ostean, zuzenean etorri naiz zuregana, zure talentuarekin arazo hau konpontzeko eskatzera. Poliziak argi esan du ez dakiela zer egin. Nahi eta behar dituzun gastuak atxikitu, mila librako saria eskaini dut jada. Ene Jauna, zer egingo dut! Ohorea, harribitxiak eta semea galdu ditut gau berberean. O, zer egingo dut!

Eskuak burura eraman zituen eta kulunka hasi zen aurrera eta atzera, bere buruarekin hizketan, hitzez haratago doan atsekabea duen haurra bailitzan.

Sherlock Holmes isilik geratu zen eserita minutu batzuk, kopeta ilun, eta begirada suan finkatuta.

—Bisita asko izaten dituzu? —galdetu zuen.

—Nire bazkidea eta bere familia ezik, inor ere ez; noizean behin Arthurren lagun bat. George Burnwell jauna azkenaldian hainbatetan egon da. Inor gehiagorik ez, ustez.

—Sarritan irteten zara?

—Arthur, batez ere. Mary eta biok etxean geratzen gara. Ez zaigu bereziki asko gustatzen ateratzea.

—Arraroa da hori, neskata batentzako.

—Neska lasaia da. Gainera, ez da hain gaztea, hogeita lau urte ditu.

—Esan duzunaren arabera, gertaera honek bera ere harritu du.

—Ikaragarritzkoa! Ni baino kaltetuago dirudi.

—Bietako inork ez du zalantzan jartzen zure semearen erruduntasuna?

—Nolatan jarriko dugu zalantzan, nik neuk ikusi bainuen diademarekin!

—Nekez iruditzen zait hori behin-betiko froga dela. Diademaren beste guztia ere hondatuta zegoen?

—Bai, bihurrituta.

—Ez duzu uste, ba, tente jartzen saiatzen ari zela?

—Jaungoiko bedeinkatua! Zure ahalmen osoa erabiltzen ari zara semea eta neu laguntzeko. Baina gaitza da. Zer demontre egiten zuen hor? Asmoa txarra ez bazen, zergatik ez zuen esan ba?

—Horixe bera. Eta erruduna izango balitz, zergatik ez zuen gezurrik asmatu? Ezer ez esatea bi ahoko ezpata da. Elementu bitxiak daude kasu honetan. Zer esan zuen poliziak iratzarri zizun soinuari buruz?

—Uste dute Arthurrek logelako atea ixteagatik izan omen zela.

—Oso komenigarria! Kriminal batek atea danbada batekin itxiko balu ere, etxe osoa esnatzeko. Zer esan dute galdutako harribitxieiei buruz?

—Oraindik bilatzen ari dira taulen azpian eta altzarietan, topatzeko asmoarekin.

—Etxetik kanpo begiratzea okurritu al zaie?

—Bai, prestutasun osoarekin. Lorategi oso-oso arakatu dute.

—Esan iezadazu, ba, jauna —gehitu zuen Holmesek—, ez al da zentzuzkoena arazoa hasieran uste baino erabat konplexuagoa dela? Zure irudipean, kasu sinplea da; nire iritzian, izugarri traketsa da. Aintzat hartu zure teoriak dioena: suposatzen duzu zure semea ohetik jaiki zela, zure jantzigelara joan arriskutsua izanda ere, gero idazmahaia ireki, diadema hartu, piezatxo bat puskatu, beste leku batera joan, bertan hogeita hemeretziatik hiru harribitxi bikainki ezkutatu inork ez topatzekotan, eta beste hogeita hamaseien bila bueltatu zela, berriz arriskuaren aurrean agerian utziko zion gelan bertan. Orain diotsut: teoria hori defendagarria da?

—Besteren bat al dago? —galdetu zuen negarrez bankariak, itxaropena erabat galduta—. Asmo onak bazituen, zergatik ez dizkit kontatu?

—Hori gure egitekoa da —erantzun zion Holmesek—. Orain, ongi baderitzozu, Holder jauna, Streathamera joango gara batera, eta ordu batez arituko gara detaile ñimiñoenak ere behatzen.

Nire lagunak eskatu zidan beraiekin joateko. Gogotsu hartu nuen, entzundako istorioak nire kuriositate eta sinpatia sustatu baitzituen. Aitortu beharra dut, bankariaren semearen erruduntasuna begi-bistakoa egiten zitzaidan, aita gizajoari bezala. Baina oraindik sinesten nuen Holmesen gaitasunean, hainbeste non itxaropenerako lekua zegoen bera orokorrean onartutako azalpenarekin ados ez egon bitartean. Ez zuen hitzik esan, hegoaldeko aldirira joan ahala, baina kokotsa bular gainean eta kapelarekin begiak estalita eseri zen, bere pentsamenduetan sakon murgilduta. Gure bezeroa apur bat berpiztu zela zirudien, itxaropen txikiaren aurrean, eta nirekin bere laneko gaiei buruzko elkarrizketa lasai bat hasi zuen. Trenean bidai laburra eta are ibilaldi laburragoan Fairbankera heldu ginen, finantzariaren egoitz xumera.

Fairbank tamaina handiko eta harri zurizko etxea zen, errepidetik apur bat urrunduta. Bitan banatzen zen bideak, elurrez estalitako belardian, sarrerako burdinazko bi ate itxietara ematen zuen. Eskuman, sasitza batetik ateratzen zen bi heskairen artetik bidezidor bat, sukaldeko ateraino; langileen sarrera osatzen zuen. Ezkerrean, bidexka batek ukuiluetara ematen zuen. Publikoa izan arren, lursailen barnean ez baitzegoen, gutxitan erabiltzen zen. Holmesek atearen aurrean utzi gintuen eta etxearen inguruan ibili, aurrealdera etorri, zerbitzarien bidetik jaitsi, eta ukuiluetarako bidexkatik joan zen. Hainbeste denbora eman zuen, non Holder jauna eta biok egongelara sartu ginen eta sutondoan itxaron genion. Isil-isilik geunden eserita atea ireki eta neska gazte bat sartu zenean. Garaiera arrunta baino altuagoa zen, argala, ile eta begi ilunekoa, azal zurbilarekin are ilunagoak zirudienak. Ez dut uste bizitzan ikusi dudarik aurpegi zuri erikorragerik emakume baten. Ezpaineak ere baziruditen ez zutela odol nahikorik, baina begiak gorrituta zituen negarragatik. Isilean sartzen zen bitartean, bankariaren deskribapenarekin baino harrituago gelditu nintzen; izaera askoz sendoagoko emakumea zela ikusten zen, bere buruarekiko kontrol handiko norbait. Niri kasurik egin gabe, osabarengana hurbildu zen eta bere burua laztandu zuen emakumezkoaren gozotasun osoarekin.

—Arthur aske uzteko eskatu duzu, ezta, aita? —galdetu zuen.

—Ez, ez, maitea. Kontua erroraino ikertu behar da.

—Baina ziur nago errugabea dela. Badakizu emakume baten sena nolakoa den. Nik badakit berak ez duela kalterik egin eta zure jokabideez damutuko zarela.

—Zergatik ez du ezer esaten, orduan, errugabea bada?

—Batek daki. Agian zuk susmagarritzat hartzeak haserretu zuelako.

—Nola ez nuen ba susmagarritzat hartuko, diademarekin ikusi bainuen?

—O, baina ikusteko soilik hartu zuen. Ea, sinetsiezadazu, errugabea da. Gaia alde batera utzi eta bukatutzat hartu. Arthur kartzelan egoteak hainbeste tristatzen nau!

—Ezin dut gaia alde batera utzi harribitxiak berreskuratu arte, inoiz ez, Mary! Arthurrenganako maitasunak itsutu egiten zaitu niretzat izango dituen ondorioen aurrean. Gaia isilean gorde ordean, gizon zintzo bat ekarri dut Londresetik, hobeto ikertzeko.

—Gizon hau? —galdetu zuen, niri begira.

—Ez, bere laguna. Bakarrik uzteko eskatu zigun. Ukuiluen bidexkatik dago orain.

—Ukuiluen bidexkatik? —Bekain beltzak altxatu zituen—. Eta zer espero du hor topatzea? Ai, hau dela suposatzen dut. Ziur nago, jauna, egiaztat hartzen dudana frogatzeko gai izango zarela; hau da, nire lehengusua, Arthur, krimen honetan errugabea dela.

—Zeharo ados nator zurekin eta, zu bezala, ziur nago frogatzeko gai izango garela. —Agertu zen Holmes, lanpasean zapatetako elurra kentzen zuela—. Mary Holder andereñoarekin ari naizela esango nuke. Galderaren bat egin al diezazuket?

—Mesedez, egizu, kontu hau konpontzen laguntzearren.

—Bart gauean ez zenuen ezer entzun?

—Ezer ere ez, osaba hizketan ozenki hasi zen arte. Hori entzun eta jaitsi nintzen.

—Leihoak eta ateak itxi zenituen gauean. Ez al da horrela?

—Bai.

—Goizean giltzaz itxita jarraitzen zuten?

—Bai.

—Neskame batek maitaleren bat dauka? Iruditu zait osabari esan diozula bart gauean atera zela bera ikustera.

—Badu, bai. Egongelatik kanpo zegoen neska da, eta agian osabak diademari buruz esan zuena entzun zuen.

—Ados. Zuk diozu orduan bere maitaleari kontatzera irten zela eta bi horiek batera lapurreta prestatu zutela.

—Nolanahi ere, zer zentzu daukate teoria lauso guzti hauek —ozen esan zuen bankariak— esan badizuet jada Arthur ikusi nuela diadema hartzen?

—Pazientzia pixka bat, Holder jauna. Gero bueltatuko gara horretara. Neskari buruz, Holder jauna, sukaldeko atetik sartzen ikusi zenuen berriz, ala ez?

—Bai, atea zarratuta zegoela ikustera joan nintzenean sartzen ikusi nuen. Gizona ere bai, ilunpetan.

—Ezagutzen duzu?

—Hara, bai! Barazkiak ekartzen dizkigun janari-saltzailea da. Francis Prosper du izena.

—Eta bera —jarraitu zuen Holmesek— atearen ezker aldean geratu zen; hau da, bidean, atetik baztertuta?

—Bai, hori da.

—Eta egurrezko hankarik du?

Beldur moduko zerbait agertu zen neskatilaren begi adierazkor beltzetan.

—Hara, magoa zara? —galdetu zuen neskak—. Nola dakizu hori?

Irribarre egin zuen Maryk, baina Holmesek ez zion gestu bera bueltatu.

—Goiko solairura igotzea nahiko nuke orain —esan zuen—. Eta beharbada berriz kanpora atera beharko dut miaztera. Izan ere, hobe izango da beheko leihoak berriz ikusten baditut gora igo aurretik.

Bizkor aritu zen leiho batetik bestera mugitzen, sarrerako leiho handian gelditu zen soilik, ukuiuetako bidexka ikusgai uzten zuena. Zabaldu zuen eta ertzari eta markoari luparekin begiratu bat eman zien.

—Orain bai, gora igoko naiz —esan zuen, azkenean.

Bankariaren jantzigela ez zegoen altzari askoz hornituta: alfonbra grisa, idazmahai handia eta ispilu luze bat zeuden. Holmes idazmahaira hurreratu zen lehenik eta sarrailan fijatu zen.

—Zein giltza erabili izan zen irekitzeko? —galdetu zuen.

—Semeak aipatu zuena, trastelekuko armairuarena.

—Zurekin duzu hemen?

—Mahai gainean dagoena da.

Sherlock Holmesek hartu eta horrekin idazmahaia ireki zuen.

—Ez du soinurik egiten —esan zuen—. Horregatik ez zintuen iratzarri. Suposatzen dut, hortaz, kutxatila honek diadema duela. Begiratu bat emango diot ere bai.

Kutxatila ireki zuen, eta hartu ostean mahai gainean posatu zuen. Bitxigilearen artelan hori sekulako ale bikaina zen, eta hogeita hamasei harribitxiak inoiz ikusi ditudan finenak ziren. Diademaren alde bat puskatuta zegoen, hor egon beharko luke hiru gema eutsiko lituzkeen kendutako zatiak.

—Orain, Holder jauna —esan zuen Holmesek—, ikusi zoritxarrez galdutako pieza egon beharko lukeen izkina. Apurtuko duzu, mesedez?

Bankariak atzera egin zuen, ikaratuta.

—Ezta ametsetan ere —esan zuen.

—Beraz, nik neuk egingo dut. —Holmesek bat-batean pieza okertzeko indarra egin zuen, baina ez zuen lortu—. Apur bat eman egiten dela esango nuke —azaldu zuen—, baina,

oso hatzamar sendo ditudan arren, denbora beharko nuke puskatzeko. Gizon arrunt bat ez litzateke kapaza izango. Orain, zer gertatuko litzateke apurtu izan banu, Holder jauna? Pistola tiro bat bezalako zarata aterako luke. Esaten duzu, hortaz, hau guztia gertatu zela zure ohetik metro gutxitara eta ez zenuela ezer ere ez entzun?

—Ez dakit zer pentsatu. Dena iluna iruditzen zait.

—Beharbada, argitzen joango gara gutxi-gutxika. Zer deritzozu, Holder andereñoa?

—Aitortu behar dizut, osaba bezala, txundituta nagoela.

—Zure semeak ez zeukan jantzita zapatarik edota etxeko oinetakorik ikusi zenuenean?

—Ezer ere ez, bakarrik prakak eta alkandora soinean.

—Eskerrik asko. Erabat mesedegarria izan da lortutako zortea ikerkuntza honetan, eta gure errua izango da arazoa argitzen lortzen ez badugu. Zure baimenarekin, Holder jauna, kanpora noa ikerketarekin jarraitzeko.

Bakarrik irten zen, hola eskatu zuen, ez beharrezko oinatzek eginkizuna are zailagoa egingo baitzuten. Ordu batez edo lanean aritu zen, eta bueltatzean oinak elurrez beteta eta betiko aurpegi adigaitza zekarren.

—Ikusi beharreko guztia ikusi dut, Holder jauna —esan zuen—. Hobeto lagunduko dut nire gelara bueltatzen banaiz.

—Baina, harribitxiak, Holmes jauna. Non daude?

—Ezin dizut kontatu.

Bankariak eskuak bihurritu zituen.

—Ez ditut berriz ere ikusiko! —oihu egin zuen—. Eta nire semea? Itxaropena emango didazu?

—Nire aburua ez da batere aldatu.

—Hortaz, Jainko maitea, zer kontu ilun gertatu zen nire etxean bart gauean?

—Bihar goizean, bederatziak eta hamarrek artean, Baker Streeteko etxera bazatoz, gogo handiz saiatuko naiz dena argitzen. Ulertzen dut baimen osoa ematen didazula zure

izenean aritzeko, trukean harribitxiak berreskuratzeke helburuarekin, nire gastuei mugarik jarri gabe.

—Ondasun osoa emango nuke berreskurtzear.

—Oso ondo. Bitartean, ikertzen jarraituko dut. Agur ba, posiblea da berriro hona etortzea ilundu baino lehen.

Argi zegoen nire adiskidearen buruak jada deliberatu zuela kasua, nahiz eta ezin imajinatu ere egin bere ondorioak. Etxerako bidean, hainbat alditan saiatu nintzen ikertzen, baina beti beste gaietara igarotzen zen, ni etsitu arte. Oraindik ez ziren hirurak etxeratu ginenean. Bere gelara azkar igo zen eta minutu gutxitan berriz jaitsi zen nagi arrunt bat bezala jantzita. Lepoa gora biratuta, jaka zikin eta distiraz beteta, lepoko zapi gorria eta gastatutako botak zituen, klase haren adibide paregabea zen.

—Honekin balio izango du —esan zuen, tximiniaren ispiluari begira—. Zu etortzea nahiko nuke, Watson, baina zoritxarrez ezin da horrela izan. Izan liteke hizpidean egotea, edo argi-txakur baten atzetik ibiltzea; baina jakin behar dut bietatik zein den. Espero dut ordu gutxi batzuk barru bueltan egotea.

Mahai gainean zegoen okelatik xerra bat moztu zuen, bi ogi-xerren artean sartu eta ustekabeko mokadua poltsikoan sartzen zuen bitartean espedizioari ekin zion.

Tea bukatu berri nuen bueltatu zenean, oso umore onarekin, bota elastikoa eskuan alde batetik bestera mugitzen ari zela. Izkina batera bota zuen eta te kikara bat prestatu zuen.

—Pasadan nago orain —esan zuen—. Oraintxe bertan joango naiz.

—Nora?

—O, West End auzoko beste aldera. Denbora luzez egongo naiz kanpoan. Ez iezadazu itxaron beranduegi egiten bada.

—Nola doakizu momentuz?

—Ea, hala-hola. Ezin naiz kexatu. Streatham-en egon naiz berriro, baina ez dut etxera deitu. Oso arazo bitxia dugu, ez nuke inola ere horrelakorik galduko. Hala ere, ezin naiz hemen marmarrean aritzen geratu, jantzi negargarri hauek erantzi behar ditut eta nire zera agurgarria izatera bueltatu.

Bere jokaeren bidez igortzen zen bere hitzek esaten zutenaz gaineko zerbaitengatik pozik zegoela. Begiek distira zuten, eta masailetan kolore apur bat zuen. Azkar eskailerak gora joan zen, eta minutu gutxi batzuen buruan sarrerako atearen danbada entzun nuen, ehizan zebilen berriz ere.

Gauerdira arte itxaron nion, baina bueltan ez zegoela zirudienez, logelara joan nintzen. Ez zen arraroa bera egunak eta gauak kanpoan igarotzea pista baten atzetik, hortaz ez ninduen arduratzen berandutzeak. Ez dakit zein ordutan heldu zen, baina gosaltzera jaitsi nintzenean hor zegoen, kafe katilua esku batean eta bestean egunkaria zituela, berri-berria eta txukun.

—Barkatu zu gabe hasteagatik, Watson —esan zidan—, baina gogoratuko duzu gure bezeroarekin nahiko goiz geratu naizela.

—Bederatziak pasa dira —erantzun nuen—. Ez litzateke arraroa izango bera bada etorri dena. Kanpaia entzun dudala esango nuke.

Bazen, jakina, gure laguna finantzaria. Zekarren aldaketa harritu ninduen: normalean aurpegi zabala eta trinkoa zuen, horren ordean zurbila eta argala zeukan, eta ilea zuriagoa zuela iruditu zitzaidan. Gogorik gabe sartu zen, aurreko eguneko kemena baino askoz penagarriagoa zen, eta hurbildu nion butakan eseri zen indarrik gabe.

—Ez dakit zer egin dudan horrelakorik merezi izateko —esan zuen—. Orain dela bi egun, gizon zoriontsu eta arrakastatsua nintzen, munduko ezerk ez ninduen kezkatzen. Orain, aldiz, ohorerik gabeko zahartzaro bakartia dut aurrean. Atsekabeak bata bestearen atzetik jarraian datoz. Nire ilobak, Maryk, utzi nau.

—Utzi?

—Bai. Ez du lorik egin bere ohean, logela hutsik zegoen, eta ohar bat utzi du harrerako mahaian. Atzo gauean esan nion, penaz beteta, ez haserre, nire semearekin ezkondu izan balitz dena ondo atera izango zitekeela. Beharbada zentzugabekeria bat izan zen hori esatea. Horri egiten dio erreferentzia utzitako oharrean: «Osaba maitea: Arazoak ekarri dizkizudalako sentiazioa dut, eta beste era batean jokatu izan banu, ezbehaz hau gerta izan ez zitekeen. Ezin dut, ideia hori buruan izanda, zure babespean pozik bizi, eta utzi behar zaitudala uste dut. Ez kezkatu nire etorkizunaz, neurriak hartu ditut jada; eta,

ororen gainetik, ez nazazu bilatu, ez baitu ezertarako balioko eta ez ninduke ezertan lagunduko. Bizian eta hilean, beti izango naiz. Zure kuttuna, Mary».

»Zerk esan nahi du ohar honek, Holmes jauna? Bere buruaz beste egin duela uste duzu?

—Ez, ez, ez da horrelakorik gertatu. Izan ere, ondoriorik onena izan daiteke. Laster, Holder jauna, zure arazo guztiak bukatuko direlako uste ona dut.

—Hara zer diozun! Zerbait entzunda duzu, Holmes jauna, eta zerbait dakizu! Non daude gemak?

—Ez duzu uste, ba, 1000 libra pieza bakoitzeko gehiegizkoa dela?

—Hamar mila ere ordainduko nuke.

—Ez da beharrezkoa. Hiru mila nahikoa da. Eta sari txikitxo bat ere dago, suposatzen dut. Hemen duzu taloitegia? Hartu idazluma hau. Lau mila izan daitezela, hobe.

Aurpegia harri eginda, txekia egin eta eman zuen. Holmes bere idazmahaira hurbildu eta hiru gema zituen urrezko piezatxo triangeluar bat atera zuen. Mahaian utzi zuen.

Garrasi alai batekin, gure bezeroak hartu zuen.

—Badaukazu! —Arnasestu zuen—. Salbatu nauzu! Salbatu nauzu!

Haren poza lehengo atsekabea bezain sutsua zen, eta bularrera hurbildu zituen berreskuratutako gemak.

—Hau da zor duzuna, Holder jauna —esan zion Sherlock Holmesek, serio.

—Zor! —Idazluma hartu zuen—. Esa iezadazu zenbatekoa den eta ordainduko dut.

—Ez, ez da niretzat. Barkamen umil bat zor diozu gazte jatorrari, zure semeari, arazo honetan jokatu baitu harro egongo nintzatekeen moduan, akaso, ni aita banintz.

—Hortaz ez zituen Arthurrek hartu?

—Atzo ezan nizun eta gaur berriz diot, bera ez da izan.

—Oso ziur zaude! Orduan, bere bila joan gaitezen, egia deskubritu dugula esatera!

—Jada badaki. Dena argitu nuenean, elkarrizketa bat izan nuen harekin eta, ikusita ez zuela bere istorioa kontatu nahi, nik azaldu nion gertatutakoa. Berak orduan egia zela

aitortu zidan eta argiegi ez nituen detaile txiki batzuk gehitu zituen. Zure berriek, aldiz, berriz hitz egin dezala lor dezakete.

—Jainkoarren, konta ezazu, mesedez, misterio izugarri hori!

—Egingo dut ba, eta erakutsiko dizkizut jarraitutako pausu guztiak erantzuna lortzeko. Eta, lehenik, esango dizut kontatzen gogorrena egiten zaidana: elkar ulertze bat egon da George Burnwell eta zure iloba Maryren artean. Biek batera alde egin dute.

—Nire Maryrekin? Ezinezkoa!

—Zoritxarrez, horrela da; ziurra da. Ez zeuk ezta zure semeak ere zenekiten nor zen benetan etxean hartu zenuten gizon hori. Ingalaterrako tipo arriskutsuenetarikoa da: lur jotako apustularia, zeharo arduragabea den gizon txarra, sengabeko eta bihozgabeko norbait. Zure ilobak ez zekien ezer gizon mota horri buruz. Maitasun promesak xuxurlatu zizkionean belarrira, beste hamaika emakumeei bezala, neska hunkitu zuen, bakarra izan bailitzan. Batek daki zer esan zion gizonak, baina bere tresna bihurtu zuen, eta ia gauero elkar ikusten zuten.

—Ezin dut sinetsi! —oihu egin zuen bankariak, aurpegi kolorea hauskara.

—Esango dizut, orduan, zer jazo zen zure etxean aurreko gauean. Zure iloba, zu lotara joan zinela uste izan zenuenean, besteak ohartu gabe jaitsi eta bere maitalearekin hizketan aritu zen ukuiluetara ematen duen leihotik. Gizonaren oinatzak oso agerikoak ziren elurrean hor egon zen denboragatik. Zure ilobak diademaren berri eman zion. Gizonaren errearenganako grina piztu zuen, eta tipoak bere mesedeetara manipulatu zuen Mary. Ez dut zalantzan jartzen neskatoak maite zintuenik, baina emakume batzuen kasuan maitaleen amodioak beste motatako maitasunak desagerrarazten ditu; bera horietakoa dela esango nuke. Apenas entzun zituen instrukzioak ikusi zintuenean eskailerak jaisten, eta bizkor leihoa itxi eta esan zizun neskamearen eta bere egurrezko hankadun maitalearen ihesalditxoak; berez, erabat egia zen.

»Zure semea, Arthur, ohera joan zen zurekin izandako elkarriketa ostean, baina ezin zuen lorik hartu bere klubaren zorren kezka zela eta. Gauaren erdian, urrats batzuk entzun zituen, ezkutuan, korridorean zehar, zure jantzigelaraino. Erabat harrituta, mutikoa jantzi gutxi batzuk jarri eta ilunpetan itxaron zuen, gero zer gertatuko zen ikusteko. Laster gelatik

atera zen Mary, eta Arthurri pasabidearen argiek erakutsi zioten neskatoak diadema preziatua eskuetan zuela. Neska eskaileretatik behera egin zuen, eta Arthur, izututa, atzetik joan zen, eta zure atetik hurbil dagoen gortina baten atzean ezkutatu zen. Isil-isilik, Maryk leihoa irekitzen zuela ikusi zuen, eta norbaiti ematen ziola iluntasunean. Gero leihoa berriz itxi eta bere logelara bueltatu zen, zure semea ezkutatuta zegoen gortinatik oso hurbil igaro zen.

»Mary hor zegoen bitartean, Arthurrek ezin izan zuen ezer egin, agerian utziko baitzuen maite izan zuen emakumea. Baina behin neskatxa joanda, ohartu zen gertaera horrek zuregan zer nolako zorigaitz sortuko lukeenaz, eta ezinbestekoa iruditu zitzaion konpontzea. Oinutsik, momentuan zegoen horrela eta, leihoa ireki, elurrean lurreratu eta bidexkatik korrika joan zen: ilargi-argipean ikusi zuen norbait. George Burnwell jauna ihes egiten saiatu zen, baina Arthurrek harrapatu zuen eta tirabiraka ibili ziren; zure semea alde batetik zebilen tiraka, eta aurkaria bestetik. Liskarrean, zure semeak George jauna jo eta haren begian zauri bat egin zion. Klaska bat entzun zuen eta, zure semea, ikusita diadema eskuetan zuela, etxera bueltatu zen arineketan, leihoa itxi, zure gelara igo eta ohartu zen diadema bihurrituta zegoela tirabirengatik. Tentetzen saiatzen ari zen zu zeu agertu zinen momentuan.

—Posible al da? —hatsanditu zen bankaria.

—Gero, haserre bizian, leporatu zenion gertatutako guztiaz, merezi zituen eskerrak jaso orde. Ezin zuen egia kontatu hainbeste arreta merezi ez zuen pertsona salatu gabe. Hala ere, ikuspegi kortesagoa hautatu zuen eta neskaren sekretua gorde zuen.

—Horregatik Maryk (garrasi) egin zuen eta konortea galdu zuen diadema ikustean! —esan zuen Holder jaunak—. Ai ene! Erabat itsututa egon naiz, tentel halakoa! Eta gero bost minutu kanpora irtetzeko baimena eskatzen ari zen! Semeak ikusi nahi zuen ea galdutako puska gatazkaren tokian zegoen. Zein txarto ulertu dudana!

—Etxera heldu nintzenean —jarraitu zuen Holmesek—, ingurua behatu nuen, elurrean lagun ziezadakeen arrastorik zegoen ala ez. Banekien aurreko ilunabarraren ostean ez zuela elur gehiagorik egin eta izozteagatik oinatzak galdu ez zirela. Zerbitzarien bidetik igaro nintzen, baina dena oinkatuta eta bereizezina zegoen hor. Aurrerago, bestalde, sukaldeko atearen beste aldean, emakume bat eta gizon bat hizketan egon izan zirela ikusi

nuen, eta haietako oinatz bat zurezko hanka batena zen. Ohartu nintzen ere bi horiek ustekabean atzeman zituela norbaitek, emakumea azkar barrura sartu baitzen, bere oinatzen puntak sakonago zeuden eta orpoak ez hainbeste, eta zurezko hankaduna apur bat itxaroten egon baitzen, geroago alde egiteko. Neskamea eta bere maitalea izan zirela suposatu nuen, berari buruz jada hitz egin zenidan eta baieztatu zenidaten. Lorategitik buelta bat eman nuen eta ez nuen zer berririk aurkitu, poliziaren markak izango zirenak ezik; baina ukuiluatarako bidexkan oso istorio luzeago eta konplexuago batekin topo egin nuen aurrez aurre.

»Botak jantzita zituen norbaiten bi oinatz errenkada zegoen, eta beste bi errenkada oinutsik zegoen gizon batena. Geroago ulertu nuen zure semea hori azkena zela. Lehena bi zentzuetara ibili zen, eta bestea arineketan ibili zen, oinatz gainjarri horietan hautematen baitzen botak zituenaren atzetik zihoala. Jarraitu nituen eta harrerako leihora heltzen ziren, botaduna itxaroten egon zen tokian hain zuzen. Gero beste zentzuan jarraitu nituen, ehun metro edo aurrerago. Igarri nuen botadunak hor eman zuela buelta, elurrean borroka bat gertatu zelako markak zeuden, eta, azkenean, odol tanta batzuk jausi ziren bertan; erratuta ez nengoela ziurtatu zuen. Botaduna bidean behera egin zuen, eta beste odol arrasto batek ziurtatu zidan berak mina hartu zuela. Errepide nagusira heldu zen eta hor arrastoak galtzen ziren, elurra kendu baitzuten.

»Etxera sartzean, hala ere, leihoaren ertza eta markoa behatu nituen, gogoan izango duzuenetz, luparekin, eta norbait hortik pasa izan zela ikusi nuen. Sartzean, oin busti batek utzitako silueta bat desberdindu nezakeen. Momentu hartan, hasi nintzen gertatukoa asmatzen. Gizon bat kanpoan egon zen itxaroten; beste pertsona batek gemak atera zizkion; ekintza zure semeak ikusi zuen; lapurraren atzetik joan zen; liskarra izan; biek diadematik tiratu zuten, bien indarren ondorioz zaurituak izan ziren. Bueltatu zen sariarekin, baina zati bat aurkariak zuen oraindik. Oraingo galdera da: nor zen gizona eta nork ekarri zion diadema?

»Nik hurrengoko araua daukat: ezinezkoa ere baztertu duzunean, gelditzen dena, sinesgaitza bada ere, hori egia izango da. Orain, banekien zuk ez zenuela diadema hartu, hortaz bakarrik zure iloba eta neskameak geratzen ziren. Baina, neskameak izatekotan, zergatik utziko luke zure semeak erruduntzat hartu zenezan? Ez legoke arrazoirik. Alabaina, lehengusina maite zuenez, hori oso aitzakia egokia zen haren sekretua

gordetzeko; are motibo gehiagorekin, sekretu lotsagarria baitzen. Leihoan ikusi zenuela, eta diadema ikustean konortea galdu zuela gogoratzeak nire susmoa egiaztatu zuen.

»Eta nor demontre izan liteke gaizkidea? Maitale bat, nola ez. Nork bestela lortuko luke zuregan duen maitasuna eta eskertasuna baino indartsuago izatea? Banekien oso gutxi irteten zinela kalera eta lagun gutxi zenituela. Horietatik bat, George Burnwell. Ezaguna egiten zitzaidan, hark emakumeekin izandako harremanak ez dira oso ospe onekoak. Bere botak izango lirateke lurrekoak, eta harribitxiak izango lituzke, seguruan. Arthurrek harrapatu zuela jakin arren, seguru zegoela uste zuen, mutilak ezin baitzuen ezer ere ez kontatu familia konprometitu gabe.

»Imajinatuko duzu jarraian hartu nituen neurriak. Nagi bat bezala jantzita George jaunaren etxera joan nintzen, berarentzat lan egiten duen baten bitartez jakin nuen bere nagusiak aurreko gauan egindako zauri bat buruan zuela, eta, azkenean, sei txelinen trukean gizonak erabilitako zapata batzuk erosi ostean, hori ziurtatu ahal izan nuen. Horiekin Streathamera ibili nintzen eta oinatzekin bat zetozen.

—Jantzi eskaseko eskale bat ikusi nuen atzo bidean —esan zuen Holder jaunak.

—Hain zuzen, neu nintzen. Gizona topatu nuenez, etxera bueltatu eta arropak aldatu nituen. Hurrengo pausua kontu handiz eman behar nuen, prozesatze bat ekidin behar bainuen eskandalurik ez gertatzeko, eta banekien tipo buruargi eta arriskutsua ohartuko zela gaian sartuta geundela. Gizona ikustera joan nintzen. Hasieran, noski, guztia gezurtatu zuen. Baina istorioaren detaile guztiak eman nizkionean, harroxko jarri zen eta astamakila hartu zuen. Jada ezagutzen nuenez, burura pistola bat hurbildu nion, ni jo baino lehen. Ordutik aurrera, zentzu apur gehiagorekin aritu zen. Harribitxien prezioaren baliokidea, hau da, mila libra pieza bakoitzeko, emango genizkiola esan nion. Atsekabetzen ikusi nuen:

»—Kaka zaharra! —esan zuen—. Seiehungatik saldo ditut hirurak!

»Laster lortu nuen eroslearen helbidea, promes eginez ez zela prozesamendurik egongo. Haren bila joan nintzen eta, tratuan aritu ostean, harribitxiko 1000 libregatik berreskuratu nituen hirurak. Ostean, zure semea ikustera joan nintzen, dena ondo zegoela ziurtatu eta ordu biak inguru oheratu nintzen, oso lanegin gogor baten ostean.

—Ingalaterra eskandalu publiko batengatik salbatu duzun eguna —esan zuen bankariak, altxatzen zen bitartean—. Jauna, ez dut hitzik aurkitzen zu eskertzeko, baina jakin ezazu ez naizela bat ere eskergabekoa izango zuk egindakoagatik. Zure adimena entzunda nuena baino askoz bikainagoa da. Eta orain semearengana joan behar dut egindako gaitz guztiengatik barkamena eskatzeko. Mary gaixoari dagokionez, kontatutakoak benetan tristetzen nau. Ezta zure talentuak ere ez dit esango non dagoen orain.

—Nik uste, esan genezake ziurtasun osoz —erantzun zion Holmesek—, George Burnwell jaunarekin dagoela. Eta, hain ziurra da ere, berdin du nolakoak diren bere pekatuak, biek laster jasoko dutela aski zigorra.